

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Lehendakariak Espainiak Mexikon duen enbaxadorea hartu du

Diplomazialariak Yolanda Barcinari bere herrialdeak eskaintzen dituen aukera ekonomikoak helarazi dizkio

Viernes, 05 de abril de 2013

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcinak Espainiak Mexikon duen enbaxadore Manuel Alabart hartu du gaur goizean Nafarroako Jauregiko bere bulegoan. Alabart-ek herrialde iberoamerikarrak Foru Komunitateko enpresarientzat eskaintzen dituen aukera ekonomikoen berri eman dio.

Ordezkeri diplomatikoak azaldu duenez, Mexiko zabalkunde-une garrantzitsua bizitzen ari da azken urteotan; hala, Txinaren aurretik ere jarri da zenbait sektoretan, AEBetako merkatuan sartzeko produktuen hornitzaile nagusi modura.

Enbaxadorea automobilgintza-sektoreaz aritu da; izan ere, sektore horretan uste du enpresari nafarrek negozioerako aukerak izan ditzaketela eta, horrekin batera, arkitektura edo ingeniariaritzaren alorretan ere profesional kualifikatuak erakartzeko beharra duela herrialdeak.

Alabart Espainiak Mexikon duen enbaxadorea da 2009. urtetik. Aurrez, Ekuatore Ginean izan zen (1988-1991), Malaysian (1992-1996), Argentinan (2000-2004) eta Saudi Arabian (2005-2009), eta Iran, AEB eta Portugalgo ordezkari diplomatiko espainiarretan izan da.

Harrera –bertan izan da ere Nafarroako Merkataritza Ganbera eta Industriako lehendakari Javier Taberna ere– diplomazialari espainiarrak Nafarroara gaur egin duen bidaiaren barnean sartzen da herrialde iberoamerikar horretan interesak dituzten Foru Komunitateko enpresariekin biltzeko.



Barcina Lehendakaria eta Alabart enbaxadorea.